**Zk-2702**

513/1999 EBAZPENA, maiatzaren 20koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Bizkaiko Osasun Barrutiko Uribe Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Bizkaiko Osasun Barrutiko Uribe Eskualdeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua hutsik dagoenez, zuzendaritza nagusi honek lanpostu hori izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Hona hemen

OINARRIAK

*Lehenengoa.–* Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoek (funtzionarioek, estatutupekoek edo lan-kontratukoek), Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek eta bere erakunde autonomoetakoek, eta deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten gainerako langileek eskatu ahal izango dute Bizkaiko Osasun Barrutiko Uribe Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua, zeinetarako deialdia erabaki honen bitartez egiten baita. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

1.a Unibertsitateko titulazioa izatea.

2.a Administrazio eta gestio-lanetan esperientzia izatea.

*Bigarrena.–* Eskabideak Osakidetzako Egoitza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzan aurkeztuko dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean kontatzen hasi eta 15 egun baliodunko epean; horretaz gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz ere bidali ahalko dira. Lege hori 4/1999 Legeak aldatu zuen.

*Hirugarrena.–* Deialdi honetan parte hartu nahi duten hautagaiek eskabidearekin batera curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute. Bertan honako hauek jasoko dira:

– Titulu akademikoak.

– Betetako lanpostuak.

– Lanbidean eta gestio sanitarioan izandako esperientzia.

– Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntz ezagupideak eta aipagarri iritzitako bestelako merezimenduak.

**N°-2702**

RESOLUCIÓN 513/1999, de 20 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se anuncia convocatoria publica para la provisión del puesto de trabajo de Director/a Económico-Financiero de la Comarca Uribe, Área de Salud de Bizkaia.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Director/a Económico-Financiero de la Comarca Uribe, Área de Salud de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección General acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

BASES

*Primera.–* El puesto de trabajo de Director/a Económico-Financiero de la Comarca Uribe, Area de Salud de Bizkaia que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) adscrito a las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como por el personal Funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por aquel otro personal siempre que reúna los siguientes requisitos:

1.º Estar en posesión de Titulación Universitaria.

2.º Tener experiencia Administrativa y de Gestión.

*Segunda.–* Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Recursos Humanos de la Sede Central de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999.

*Tercera.–* Los aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a su solicitud un Curriculum Vitae en el que harán constar:

– Títulos Académicos.

– Puestos de trabajo desempeñados.

– Experiencia profesional y de gestión sanitaria.

– Estudios, cursos, ponencias, publicaciones conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportunos manifestar.

Eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztutako merezimenduak benetakoak direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek eskabidearekin batera. Horretaz gain, komenigarri ikusten dituzten argitalpen, txosten edota bestelako agiriak ere aurkez ditzakete.

*Laugarrena.–* Osakidetzako zuzendari nagusiak ebatziko du deialdia, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunean hasi eta, gehienez, hilabeteko epean. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*Bosgarrena.–* Ebazpen honen aurka errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko maiatzaren 20a.

Osakidetzako zuzendari nagusia,
FRANCISCO VILLAR COLSA.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán acompañar cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

*Cuarta.–* La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

*Quinta.–* Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 1999.

El Director General del Servicio vasco de salud,
FRANCISCO VILLAR COLSA.

## Zk-2703

491/1999 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Bizkaiko Osasun Barrutiko Gurutzetako Ospitaleko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Bizkaiko Osasun Barrutiko Gurutzetako Ospitaleko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua hutsik dagoenez, zuzendaritza nagusi honek lanpostu hori izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Hona hemen

OINARRIAK

*Lehenengoa.–* Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoek (funtzionarioek, estatutupekoek edo lan-kontratukoek), Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek eta bere erakunde autonomoetakoek, eta deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten gainerako langileek eskatu ahal izango dute Gurutzetako Ospitaleko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua, zeinetarako deialdia erabaki

## N°-2703

RESOLUCIÓN 491/1999, de 21 de mayo, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se anuncia convocatoria publica para la provisión del puesto de trabajo de Director/a de Personal del Hospital de Cruces, Área de Salud de Bizkaia.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Director/a de Personal del Hospital de Cruces, Área de Salud de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección General acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

BASES

*Primera.–* El puesto de trabajo de Director/a de Personal del Hospital de Cruces que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) adscrito a las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como por el personal Funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por